

LAN-POLTSAK IREKITZEA ETA EGUNERATZEA

Hurrengo AZAROAREN 26an honako ebazpen hau argitaratuko da EHAAn: EBAZPENA, 2014ko azaroaren 11koa, Justizia Administrazioiko zuzendariarena; horren bidez irekitzen dira Justizia Administrazioiko Auzitegiko Medikuen eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoen lan-poltsak, eta eguneratzen dira horietan sartuta dauden guztien datuak.

- Eskabideak aurkezteko **epea**: azaroaren 27tik abenduaren 11ra.
- **Agiriak**:
 - Administrazio honen esku ez dauden agiriak bakarrik aurkeztuko dira.
 - Erreferentziazko EPEak 2011koa eta aurreko hirurak izango dira. Horien emaitzak ofizioz kontatuko dira. Ez dago agiririk aurkeztu beharrik.
 - Eskainitako zerbitzuak:
 - EAEko Justizia Administrazioen kasuan, ofizioz kontatuko dira.
 - EAetik kanpoko Justizia Administrazioen kasuan, JATORRIZKO ZIURTAGIRIAK aurkeztu behar dira.
- Gaur egungo lan-poltsetan daudenek **ez dute eskabiderik aurkeztu behar**, salbu eta datu pertsonalak edo lurralde-eremua aldatu nahi badute edota agiri **berriak** aurkeztu nahi badituzte.

2014/11/12